

[illegible]

Kulturaz...

parte hartzeaz...

Denon parte hartzea bermatzen denean,
denok sentitzen dugu geure eraikitakoa

JOXE MARI AGIRRETXE, PORROTX

autogestioaz...

Pertsonen erabakitzeko eskubidean
oinarritzen da, eta autoeraketan
oinarritutako gizartea humanoagoa da

NAGORE IRAOLA

kulturaz...

Herrialde bat hondoratzean, zutik geratzen
den gauza bakarra bere kultura da.
Horregatik da hain garrantzitsua. Kulturarik
gabeko herria desagertu egiten da

ALEJANDRO JODOROWSKY



MARKA NORTASUNA
KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA
IRUDIA ETA DISEINUA
HARREMAN PUBLIKOAK

ERE GI
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

**SORMENETIK ETA EUSKARATIK
KOMUNIKAZIO
KULTURA BERRIAK ERAIKIZ**

Goiko kalea, 5 - 3A - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) 943 08 06 88 www.eregi.eus


Twitter Facebook



aurkibidea

1. Kulturaz Azpeitiko Kooperatiba.....	4
2. Elkarlana.....	8
3. 2016ko jarduera.....	12
4. Proiektuak.....	16
5. Ostalaritza.....	21
6. Egutegi Bateratua	22
7. Datu ekonomikoak.....	23
8. Azpiegiturak	24
9. Kanpo begiradak.....	26





Jose Luis Otamendi

Kulturaz Azpeitiko
Kooperatiba-ko
Artezkari-tza
kontseiluko
lehendakaria

“Zer da, baina, Kulturaz? Kulturaz, Azpeitiko Kultur Mahaiak eratua duen enpresa egitura da. Kooperatiba, enpresa sozial bat. Helburu hartuena herritarrei kulturaren aukera eskueran jartzea duena. **Kulturaren fabrika**”

Kulturaz kooperatibaren urtekaria duzu esku artean. Aspalditik nahi genuen jendartearen gure jardunaren berri eman, beti ez baitugu jakin izan zuzen komunikatzen zertan ari garen eta nola.

Azken urteotan krisiak gogor jo duen arren, dena ez da izan lanpostu galtzea eta fabrika ixtea Azpeitian. Ordu zailetan bere izateari eusteko kemena erakutsi du herri honek, eta kulturak argi printzak sortu ditu ilun beltzean.

Zer da, baina, Kulturaz? Kulturaz, Azpeitiko Kultur Mahaiak eratua duen enpresa egitura da. Kooperatiba, enpresa sozial bat. Helburu hartuena herritarrei kulturaren aukera eskueran jartzea duena. Kulturaren fabrika.

2016ra arte Sanagustin Kooperatiba zenak Kulturaz du izena orain. Horrela kooperatibaren egungo jardun eremua egokiago adierazten delakoan gaude, Sanagustin Kulturguneaz gain Soreasu Antzokia ere berak kudeatzen baitu.

Eredu autonomo baten bila egindako lanak ekarri du boladan egotera kultura Azpeitian. Gakoa, elkar hartu eta herri gisa jokatzeko ikastea izan da. Unean uneko lehentasunak adostu eta aurrera egitea . . . Noizbait kultur politiken zerbitzura jarriko da ekonomia, eta ordurako geure alea jarri nahi dugu horren alde.

Hemen Kooperatibako langileek, bazkideek, herritarren eta Udalaren babesak eusten diote fabrika honi egunero. Hala ere, jende askorengana nola iritsi ez dakigu oraindik, eta gogoeta iturri zaigu gabezia hori.

Kulturak nitasunez, gutasunez galdezka etengabe janzten gaitu eta etengabe biluzten geu garen ispilaren aurrean.

Kulturaz ari gara orriotan, pertsonen nortasuna osatzeko eta herri izateko bidez . . . Kontu inportanteak inoren esku lagatzeko. Kulturaren fabrika da, ardurarena, inon den lantegirik ederrenetakoa. Ondo etorri!



Oihana Elduaen, Jose Luis Otamendi, Mari Jose Bikendi, Eusebio Beloki, Hiart Agirretxe argazkian; Olatz Aguado eta Igor Arangurenekin batera osatzen dute Artezkari-tza.



Kulturaz Kooperatiba gara, kultura bere izaera zabalenean ulertuta, honen alde eta gure herriaren ongizatean apustua egin dugun enpresa egitura bat. Sinetsita geunden, eta halaxe gaude, kulturak ere ekonomian eragin zezakeela eta denborak hala erakutsi digu. Sinesten genuen eta sinesten dugu elkarlanean, herritarrekin, kultur zein bestelako eragileekin, udalarekin eta norbanakoekin oro har kultur proiektu bat garatzea posible dela.

Garatzen goazenez, hobetzeko asko dugula jakitun, bide onean goazen iritzian sendo gaude! 2011 hasieran, Azpeitiko Kultur Mahaian enpresari nolako izaera eman nahi genion erabakitzerakoan, adituei aholkua eskatuz eta horiei erreparatuz, garbi izan genuen Kooperatiba izaera hartu behar genuela.

Guk, kultura eskaini nahi diogu Azpeitiari eta arrazoi horregatik, irabazi asmorik gabeko kooperatiba gara. Ondorioz, Kulturaz Kooperatibak dituen irabaziak berriro kulturen inbertitzeko konpromisoarekin jaio ginenez, printzipio hori zintzo betetzen dugu!

Ez da erraza izan egindako bidea, ilusioz baina hutsetik abiatu baikinen. Jakitun gara bide luzea dugula egiteko, baina pixkanaka Kulturaz Kooperatiba badoa bere egitura sakontzen eta osatzen. Jada bost urte bete ditugu eta urte horietan denetan alde guztietatik eta era askotako babesa jaso dugu.

Beraz, zuri ere, eskerrik asko bide lagun zaitugulako!

Olatz Aguado

Kulturaz Azpeitiko
Kooperatiba-ko
Artezkaritza
kontseiluko kidea

"Kultura eskaini nahi diogu Azpeitiari eta arrazoi horregatik, irabazi asmorik gabeko kooperatiba gara eta ondorioz, Kulturaz Kooperatibak dituen irabaziak berriro kulturen inbertitzeko konpromisoarekin jaio ginen"





Urte askok pasa behar izan zuten, 2011 hura iristerako. Aurretik ideia asko plazaratu ziren talde txikietan, Uztarría Kultur Koordinakundean... Kafe Antzoki moduko zerbeit zen nahia. Nola izaten diren kontuak!

2006an udalaren ekimenez lehen urrats batzuk egin ondoren, 2008 hasieratik entitate autonomo gisa antolatu eta ibilbide bati ekin zion Azpeitiko Kultur Mahaiak. Hasieratik han ziren herriko 22 kultur taldeak, norbanako batzuk, udal taldeak eta udal kultur teknikaria oreka emanez bilguneari.

Azpeitiko kultur politika diseinatzea da Kultur Mahaiaren egitekoetako bat, eta 2010ean proiektu handi bat lantzen hasi zen: Sanagustin kulturgunea, hura iraunkorra, erreferentea eta herritarra izateko. Haren kudeaketa du Kultur Mahaiak kooperatibaren bitartez, udal lehiaketa irabazita. 2014tik, berriz, Soreasu antzokia ere bai. Bi azpiegitura garrantzitsu horien gestioa herri bilguneak bere gain harturik, kultur proiektua bera osoago, orekatuago eta parte hartzaileagoa da horrela. Guztiok, guztiokin eta guztiontzat da proiektu hau. Azpeitiko kulturaren hauspoa.



Xabier Aranbarri

Kulturaz
Azpeitiko
Kooperatiba-ko
Kudeatzailea

“Euskarazko kultura eta Azpeitia bata bestearen ondoan letra larriz idazteko jarraituko dugu lanean eta orain arte bezala gure aldamenean behar zaituztegu”

KOOPERATIBAREN DATUAK

Sortze data:

2011

Izena:

Kulturaz Azpeitiko Kooperatiba.

Izaera:

Soziala.

Bazkide kopurua:

112 parte hartzaile norbanako

11 langile

17 kultur talde

Langile kopurua:

20-24 langile

Proiektu honen lehen pauso garrantzitsua Azpeitiko Udalak eman zuen, ausart jokatzuz, kultur politika kultur eragilean eskura uzteko aukera emanez (Sanagustin kulturgunea osatu eta lehiaketa publikora aterata). Ez dago halako eredurik Euskal Herrian, eta hori aberastasuna da. Hori, nortasuna da.

Enpresa hau sortzean inolako kapital edo patrimoniorik gabe, baina ilusioz eta gogoz gainezka abiatu ginen. Enpresa hasiberrien moduan, ekonomikoki urte gogorak pasa ditugu, are gehiago gurea diru irabazi asmorik gabeko ekimena dela kontuan hartuta. Hori gainditzeko kooperatiben benetako izaerari eutsi genion: langilea ardatz hartu eta balio erantsi moduan onartu, konpromisoa eta horizontaltasuna, talde zein norbanakoen inplikazioa, gardentasuna,... azken batean proiektuan sinesten genuen eta besteei sinestarazi genien.

Sei urteren ondoren Kooperatiba bizi-bizi eta sendo agertzen da egun: euskal kultur panoraman bere tokia hartu du, bi azpiegitura eder kudeatzen ditugu, hainbat lan ildo eta finantziario bide desberdinak ditugu, 20-24 langile, ekimen eta proiektu ugari... eta hori guztia Azpeitia eta azpeitiarrek proiektuarekiko izan duten harrera onak bermatu du.

Azpeitiko Udala izan da prozesu horretan bidelagun nagusia, urtez urte sakondu eta hobetutako harremanaren ondorioz. Beste administrazioekin ere harremanak hobetuz doaz azken urteotan nahiz eta gurea bezalako eredu desberdin bat administrazioen egitura finkoetan txertatzea ez izan erraza.

2016an lankidetzara hori hitzarmen batean oinarritzea adostu genuen, Azpeitiko Udalarekin, Egutegi Bateratua izenpean. Besteak beste, elkarlan horrek ahalbidetu ditu ondorengo orriotan ikusiko dituzuen datu emankorrak.

Datozen urteetarako ere erronka handiak ditugu. Kultur jarduera eta euskara eta euskal kultura sustatzen jarraitzeaz gain, Kooperatiba etengabeko garapen eta eraldaketa fasean dago. Gure ikur diren elkarlana eta parte hartzea kooperatibaren eremu guztietara eramatea da asmoa, kooperatiba guztiz gizarteratuz, ingurune sozialarekiko konpromisoa bultzatuz, eragile ekonomiko zein sozialekin proiektua gehiago partekatuz, erabakiguneak zabalduz eta enpresa mailara eramanez, kooperatiba lehiakorrago bihurtuz eta proiektuari sostengua emanez.

Euskarazko kultura eta Azpeitia bata bestearen ondoan letra larriz idazteko jarraituko dugu lanean eta orain arte bezala gure aldamenean behar zaituztegu.

elkarlana

Azpeitian gauzak ongi egiten badakigu. Eta egiten ditugu. Gauzak ongi egiten dakigunaren seinale da, azken urteotan, kultura arloan lortutakoa. Azpeitiko kultur dinamika indartsua ez da egun batetik besterako kontua izan. Urte askoan ondutako lanaren emaitza da; elkarlanaren emaitza. Bide horretan, Udalaren ezinbesteko zeregina izan da baliabideak eskaintzea sortzaileei eta herriko taldeei, horrek ekartzen baitu gogotsu lan egitea eta indarberritzea.

Guri, Azpeitiko Udalarari, herriko gogo eta mugimendu antolatua ikusita kultur politika propio eta desberdin bat abian jarri eta egokitzen joatea dagokigu. Hasieratik herriko eragileengan konfiantza jarri eta gertuko zein etengabeko elkarlanean aritzean dago gakoa. Horren emaitza da baliabideak optimizatzea; diru berarekin gehiago egitea edo diru gehiago inbertituz askoz gehiago egitea. Kultur eskaintza heritik sortzea, eta ziurrenik bakarrik lortuko ez genituzkeen hainbat eta hainbat gauza lortzea, eta abian jartzea.

Kultura Azpeitiko herriaren marka gero eta sendoagoa da. Kultur erreferentzia gero eta handiagoa gara, eta emaitzak gero eta nabariagoak dira herrian. Eta hori guztia kudeaketa eredu propio batekin; Udala eta kultur eragileen arteko elkarlanarekin. Euskaratik eta euskaraz; euskal kultura sendotuz, euskal sortzaileei plaza duin eta beroa eskainiz.

Euskal Herrian, Azpeitiaren tamainako herririk ba ote da horrelako kultur mugimenduarekin? Iaz, 2016an, 180 ekitaldi baino gehiagok eta kulturaz gozatu zuten 35.000 ikus-entzule kontatu genituen. Hori guztia lortzeko ezinbestekoak izan dira Azpeitiko Kultur Mahaia, Kulturaz kooperatiba, kultur taldeak, Sanagustin kulturgunea eta Soreasu Antzokia. Baina horiekin batera, norbanako askoren ilusio eta izerdia ere badago horren guztiaren atzean. Zorionak, beraz, eta eskerrik asko, hau posible egin duzuen guztioi.



Josu Labaka

Azpeitiko Udaleko
kultura batzordeburua

“Kultura Azpeitiko herriaren marka gero eta sendoagoa da. Kultur erreferentzia gero eta handiagoa gara, eta emaitzak gero eta nabariagoak dira herrian. Eta hori guztia kudeaketa eredu propio batekin; Udala eta kultur eragileen arteko elkarlanarekin”



Sanagustin da Natulen etxea, euskara elkarteko kideak biltzeko plaza eta hainbat egitasmoari oholta jarri dion gunea. Sanagustinen atzean, ordea, euskaraz eta euskaratik pentsatutako kooperatiba dugu, herritarrek arkupeetan ikusten duten guztia janzten duena. Uste dugu euskara balioan jartzeko ezinbesteko tresna dela Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatiba. Globalizazioak guztiok harrapatu gaitu, eta hizkuntza gutxituentzat erronka berezia ekarri du: Nola desberdindu gaitzke, gure txikitik, gainontzeko hizkuntzen presentzia handiagoa eta hurbilagokoa denean? Kulturaz kooperatibak beharrezko ekarpena egiten du horretan, geurea ikusgarri egiten eta esku-eskura jartzen.

Elkar-ekin

Aldaketa herritik

Bat egiten dugun ideietan elkarlana bilatzea izan da Elkar-ekin eginahaletako bat bere sorreratik. Geroztik herriko eragile eta sektore askorekin batu gara bata edo bestea antolatze lanetan, beti ere herri justu eta solidario bat ipar izanik. Sanagustin kulturgunea izan da horietako bat, herriko kultur talde ezberdinek osaturiko kooperatibak kudeatzen duen eremua. Hurbiltasuna eta konfiantza sentitu ditugu elkarlan horretan, eta asko izan dira bertan antolatu ditugun hitzaldiak eta bestelakoak. Gurea bezalako kolektibo xume batentzat lagungarria da horrelako espazio bat eskura izatea, eta edozertarako erabilgarri dugula sentitzea. Hitzaldiez eta unean uneko ekimenez gain, egunerokoan mugimendu sozialek gehiago erabili genezakeen espazioa izan daiteke Sanagustin, lanak errazteko, kartelak banatzeko, bilerak egiteko e.a. Horretan sakontzeko denon artean hitz egiten hastea ondo legoke.




Azken urtean, Kulturaz Kooperatibarekin eginiko elkarlana ugaria eta emankorra izan da guretzat. Kooperatiba Elkarteko kide egin zen unetik aurrera, etengabeak izan dira bion artean konpartitu ditugun ekintzak. Herritarrei zuzenean iritsi zaizkie gure arteko barne lanaren ondorioak: zozketatutako afariak, zinemako iragarkiak edo moda desfilea... kolaborazioak sortutako sinergiaren isla dira. Horrela izaten jarraitzea nahiko genuke.




2016 grafikatan


EKITALDI KOPURUA




HIZKUNTZA




EKITALDIEN SUSTATZAILEAK




IKUS-ENTZULE KOPURUA



JATORRIAREN ARABERA



DIZIPLINEN ARTEKO OREKA





2016ko kultur jarduera

Datu orokorrak

Ekitaldi kopurua: **180**

Ikusle kopurua: **35.263**

Kontzertuak: **54**

Antzerkiak: **18**

Dantzak: **17**

Hitzaldi/aurkezpenak: **39**

Erakusketak: **19**

Bestelako ekitaldiak: **33**

Sanagustin kulturgunean: **121**

Soreasu Antzokian: **35**

Beste toki batzuetan: **24**

Taberna itxita egindako ekitaldiak: **50,5**

Kultur sustapen proiektuak: **16**





urtarrila

Ekitaldi kop.: **12**
Ikusle kop.: **1.835**
Kontzertuak: **3**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **1**
Hitzaldiak: **3**
Erakusketak: **2**
Bestelakoak: **1**
Sanagustinen: **7**
Soreasun: **4**
Beste tokietan: **1**
Taberna itxita: **2**



otsaila



Alberto Beloki



Alberto Beloki

Ekitaldi kop.: **12**
Ikusle kop.: **2.467**
Kontzertuak: **4**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **2**
Hitzaldiak: **3**
Erakusketak: **1**
Bestelakoak: **0**
Sanagustinen: **11**
Soreasun: **1**
Beste tokietan: **0**
Taberna itxita: **4,5**



martxoa

Ekitaldi kop.: **13**
Ikusle kop.: **2.964**
Kontzertuak: **3**
Antzerkiak: 0
Dantzak: **1**
Hitzaldiak: **4**
Erakusketak: **2**
Bestelakoak: **3**
Sanagustinen: **9**
Soreasun: **2**
Beste tokietan: **2**
Taberna itxita: **3,5**



apirila



Ekitaldi kop.: **17**
Ikusle kop.: **4.157**
Kontzertuak: **4**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **1**
Hitzaldiak: **5**
Erakusketak: **1**
Bestelakoak: **4**
Sanagustinen: **12**
Soreasun: **3**
Beste tokietan: **2**
Taberna itxita: **6**



maiatza

Ekitaldi kop.: **25**
Ikusle kop.: **4.141**
Kontzertuak: **7**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **2**
Hitzaldiak: **4**
Erakusketak: **3**
Bestelakoak: **7**
Sanagustinen: **17**
Soreasun: **5**
Beste tokietan: **3**
Taberna itxita: **9,5**



ekaina



Ekitaldi kop.: **16**
Ikusle kop.: **2.873**
Kontzertuak: **5**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **1**
Hitzaldiak: **5**
Erakusketak: **2**
Bestelakoak: **1**
Sanagustinen: **8**
Soreasun: **3**
Beste tokietan: **5**
Taberna itxita: **4,5**



proiektuak

Sormena, dinamizazioa eta transmisioa dira gure lan ildoetan azpimarratuta ditugun hitzak. Ardatz horien jirabiran antolatzen dugu kooperatibaren programazioa. Eta eskaintza hori osatzeko eta borobiltzeko proiektuak ditugu lanerako tresna ezinbestekotzat. Gure jarduna indartzen dute. Hiru zutabetan banatzen ditugu:

Proiektu teknikoak:

Azpiegituren eta elementu teknikoen hobekuntza helburu dutenak.

Proiektu programatiboak:

Ohiko programazioa aberasteko helburuak dituzten ekimenak.

Proiektu integralak:

Euskal (euskarazko) kulturaren sustapena oinarrian duten proiektu eraginkor eta orokorragoak, herri ikuspegitik abiatuta Euskal Herrirako proiektzioa dutenak.



Kultur bonoa

(Proiektu integrala)

Behar bati erantzuten dio eta "kultura herritar guztien eskura" jartzeko helburua ere betetzen du Kultur Bonoak. Bonoaren bitartez kultur ekitaldietara joateko erraztasuna eman nahi diogu, kulturari berari emanez balioa. 2016an laugarren urtez atera genuen eta guztiak agortu ziren.



Txiki biran

(Proiektu programatiboa)

Herriko haurrak eta kultur taldeak gerturatzeko eta elkar ezagutzeko helburua duen proiektua da. Azpeitiko Kultur Mahaiak, Gazteria sailak eta Kulturaz kooperatibak elkarlanean egina.



San Martin egoitza

(Proiektu programatiboa)

Zinema Soreasutik atera eta jendearengana gerturatzeko egitasmoaren baitan, besteak beste, San Martin egoitzako saioak ditugu. Iazko uztailan frogatu gisa *Amama* filma bota eta Asier Altuna zuzendaria eraman genuen ikus-entzuleekin solasaldia edukitzeko. San Martingo kapila zinema areto bihurtu genuen. Aurten programazio finkoa jartzea dugu helburu.



Zuzenekoak ON!

(Proiektu integrala)

Iraurgi Ikastetxea eta Sanagustin kooperatiba elkarlanean, kultur emanaldien ezagutza, kultur eskaintzaren ezagutza eta horien gaineko alderdi kritikoa garatzea helburu duen egitasmo honekin hasi ginen.



Arkupean

(Proiektu teknikoa/integrala)

Sanagustin kulturguneko arkuetako bat ekitaldi txikietarako egokitu genuen, bigarren oholza bat bezala erabiltzeko. Sortzaile berriei oholzaratzeko lehenengotako aukera eskaintzea da proiektu honen asmoa, eta 2016an 21 emanaldi egin ziren (14 musikakoak eta 7 arte eszenikokoak).

Katapulta Tour

Sortzaile berriei heuren lanak aurkezteko plaza berri bat eskaini asmoz sortu genuen proiektu hau. Inguruan ditugun musika talde berriak nahiz proiektu eszeniko txikiak balioan jarri eta kultur dinamika aktibatzea ditu helburutzat. "Arkupea" proiektuak, modu osagarrian, bere baitan biltzen du helburu berberak dituen Katapultua Tour Gipuzkoa zirkuitua ere. Beraz, proposamen berriek badute babesik Sanagustineko plazako arkupean.



Antzerki egoitzak

(Proiektu integrala)

2016an bi antzerki sormen egoitza burutu dira eta biak Soreasu Antzokian. Tes des Mulles taldea izan zen bere obra prestatzen urtarrean eta Artedrama urrian. Bi antzerki obrak Antzerki Topaketetan eskaini ziren.



Triki Giro

(Proiektu integrala)

2016an ekimen berri bat atera da, Triki Giro. Trikiti zaleei plaza bat eskaintzea batetik, eta bestetik, lehendik dugun trikiti aberastasuna erakutsi eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzea du helburu. Bada, beraz, triki giroa Sanagustinen.





uztaila

Ekitaldi kop.: **16**
Ikusle kop.: **3.164**
Kontzertuak: **4**
Antzerkiak: **0**
Dantzak: **4**
Hitzaldiak: **1**
Erakusketak: **2**
Bestelakoak: **5**
Sanagustinen: **9**
Soreasun: **3**
Beste tokietan: **4**
Taberna itxita: **1,5**



abuztua





Ekitaldi kop.: **6**
Ikusle kop.: **645**
Kontzertuak: **2**
Antzerkiak: **0**
Dantzak: **0**
Hitzaldiak: **0**
Erakusketak: **0**
Bestelakoak: **4**
Sanagustinen: **3**
Soreasun: **0**
Beste tokietan: **3**
Taberna itxita: **0**





iraila

Ekitaldi kop.: **9**
Ikusle kop.: **1.617**
Kontzertuak: **3**
Antzerkiak: **1**
Dantzak: **0**
Hitzaldiak: **3**
Erakusketak: **1**
Bestelakoak: **1**
Sanagustinen: **7**
Soreasun: **1**
Beste tokietan: **1**
Taberna itxita: **2**



urria



Ekitaldi kop.: **17**
Ikusle kop.: **3.325**
Kontzertuak: **6**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **3**
Hitzaldiak: **3**
Erakusketak: **1**
Bestelakoak: **2**
Sanagustinen: **10**
Soreasun: **5**
Beste tokietan: **2**
Taberna itxita: **5**





azaroa

Ekitaldi kop.: **19**
Ikusle kop.: **2.670**
Kontzertuak: **6**
Antzerkiak: **3**
Dantzak: **0**
Hitzaldiak: **6**
Erakusketak: **1**
Bestelakoak: **3**
Sanagustinen: **16**
Soreasun: **2**
Beste tokietan: **1**
Taberna itxita: **9**



abendua



Ekitaldi kop.: **18**
Ikusle kop.: **5.405**
Kontzertuak: **7**
Antzerkiak: **2**
Dantzak: **2**
Hitzaldiak: **2**
Erakusketak: **3**
Bestelakoak: **2**
Sanagustinen: **12**
Soreasun: **6**
Beste tokietan: **0**
Taberna itxita: **3**





Sanagustin kulturguneko ostalaritzaz edota kaleko hizkeran esaten dugun moduan esanda, Sanagustineko tabernaz denetarik uste izan da. Askok aipatu izan dute taberna Eusebio Belokirena edo lau lagunren jabetzan dagoela...


Sanagustineko ostalaritza zerbitzuaren kudeaketa Kulturaz Azpeitiko Kooperatibak eraman du ireki zen egunetik. Elkarlana da Azpeitian sortu den kultur mugimendu honen guztiaren gakoa; Udalarekin, bestelako Administrazioekin, Azpeitiko Alde Zaharreko Tabernarien Elkartearekin... Eta elkarlan horretan gure ekarpena egiteko motorra da Sanagustin kulturguneko ostalaritza zerbitzua.

Sorrerako proiektuan genion bezala, Sanagustin bilgune erreferentziala izateko eta ahalmen ekonomikoaren bidez, kultur ahalmena lortzeko helburua du ostalaritzak; diru iturri handiagoak lortzeko kultur programazio aberatsagoa izatea ahalbidetuko duelako. Sanagustin eraikinaren ondareari dagokionez, guztiona den leku eder hau dagoen-dagoenean mantentzeko eta ahal bada hobetzeko, ondo eta egoki zaintzen jarraituko dugu.

// Sorrerako proiektuan genion bezala, Sanagustin bilgune erreferentziala izateko eta ahalmen ekonomikoaren bidez, kultur ahalmena lortzeko helburua du ostalaritzak //

Eusebio Beloki

Kulturaz Azpeitiko
Kooperatiba-ko
Ostalaritzako
arduraduna



// Sanagustineko ostalaritza zerbitzuaren kudeaketa Kulturaz Azpeitiko Kooperatibak eraman du ireki zen egunetik //

Hiart Agirretxe

Kulturaz Azpeitiko
Kooperatiba-ko
Ostalaritzako
langilea



// Kulturari ahal den guztia eskainiko diogu, baina ostalaritza zainduz. Konplizeak direlako //

Ostalaritza kulturaren konplize da, bateragarri kasu batzuetan, deserosoa besteetan. Baina beti konplize. Kulturgunea izanik, Kultur Mahaiaren proiektua izanik, iazko datuek erakusten dute hasierako baldintzak zainduz jarraitzen dugula gure zereginen. Hau da, Sanagustin kulturgunean 2016an egin ziren 121 ekitaldietatik 44 ekitalditan taberna guztiz itxita izan dugu. Beste 13 alditan erdia itxi da. Gainera 13 horietatik 5ean ekitaldia hasi eta berehala taberna guztiz itxi genuen, ekitaldiak hala eskatzen zuela iritzita. Beraz, Sanagustinen egin diren ekitaldietatik %43,8an ostalaritza itxita mantendu da.

Proiektuak markatu bezala kultura lehenesten jarraitzen dugu, eta horrela izan behar duelakoan gaude. Oreka zaintzea da dugun ardura. Kulturari ahal den guztia eskainiko diogu, baina ostalaritza zainduz. Konplizeak direlako, bata bestearen motorrak direlako. Sanagustin kulturgunea ostalaritzari esker egunero irekita egotean, batetik uneoroko bilgune izatea ahalbidetzen du, bestetik, lekua bera ezagutarazteko aukera, erreferentzialtasuna irabaztekoa. Ekarpen ekonomikoa bezain garrantzitsua da hori.

Horrez aparte, proiektuan ostalaritzaz jasoa dagoen eta garatzeko daukagun atala, bertako produktuen aldeko apustua indartzea da.



egutegi bateratua

Egutegi Bateratuak bere baitan hainbat atal biltzen ditu, jarraian azaldu nahi dizkizuegunak. Hitzarmenaren ardatz nagusia kultura, eta batik bat, euskal kulturaren sustapena da, honela banatua:

KULTUR EGITARAUA osatzerakoan honako oinarriak beteko dira:

1. Kultura eta batik bat euskal kulturaren produktzioa, hedapena eta kontsumoa bultzatu.

1.1 Kultur programazio indartsua eta orekatua.

Egutegi Bateratuaren programazio eskaintza honako ardatzetan oinarrituko da:

- Kultur espresio askotarikoen eskaintza: musika, antzerkia, dantza, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak, aurkezpenak, ...
- Kultur programazio jarraitua eta oparoa: hilabete oro batz besteko 12.
- Aste osoko eskaintza: astegunetako nahiz asteburuko
- Adin eta espektro anitzeko kultur zaleentzako eskaintza: gazteak, umeak, helduak, adituak, ez adituak...
- Hainbat oreka bilatzea kontuan hartzea programazioa osatzean: kultur espresio arteko oreka, herriko espazioen arteko oreka, egutegiaren aldetikoa...

1.2 Kulturaren kontsumoa eta, bide batez, herri mailako kulturaren kontsumoa sustatu eta erraztu.

Helburu hori betetzeko Kultur Bonoa ekimena mantendu eta indartuko da. Kultur bonoaren bidez herri mailan kulturaren kontsumoa bultzatuko da, bertako kultur eskaintza kontsumitzeagatik abantaila ekonomikoak eskainiz batetik, eta, bestetik, ekonomia aldetik ahulen diren kolektibo eta sektoreei deskontu garrantzitsuak eskainiz kultura aukera handiagoa eskura izan dezaten.

2. Sormenaren sustapena eta dinamizazioa.

Sormena eta transmisioa lantzeko proiektu programatiboak egingo dira. Proiektu horien gidaritza Azpeitiko Udalak, Azpeitiko Kultur Mahaiak eta Kulturaz Azpeitiko Kooperatibak emango dute.

3. Elkarlana eta parte hartzea.

Ekimen sozial, dinamiko eta zabal honen ardatz nagusia elkarlana eta parte hartzea izango da. Elkarlana arlo hauetara guztietara zabalduko da.



Kulturaz Azpeitiko Kooperatibaren 2016ko kultur finantziazioa




2016ko KULTUR JARDUERA SARRERAK	EMAITZA
GUZTIRA FINANTZIAZIOA	319.834
Azpeitiko Udala	65.000
Kultur diru-laguntzak	33.893
Kooperatibaren diru sarrerak	220.941

2016ko KULTUR JARDUERA GASTUAK	EMAITZA
AURREKONTU OSOA	319.834
KULTUR EMANALDIEN KOSTU ZUZENAK	233.511
Kultur Ekitaldiak	197.406
Promozioa eta komunikazioa	36.105
ESTRUKTURA GASTUAK	66.691
GASTU OROKORRAK: errentak, hornidurak, mantenua, aseguruak...	39.826
KUDEAKETA GASTUAK	26.865
AMORTIZAZIOAK / FINANTZA GASTUAK / FORMAZIOA...	19.632

2016ko KULTUR JARDUERA GASTUAK



2016ko KULTUR JARDUERA SARRERAK





azpiegiturak

SANAGUSTIN KULTURGUNEA

2011ko uztailetik kudeatzen du Kulturaz kooperatibak Sanagustin kulturgunea, Azpeitiko Udalak 2011ko apirilean bideratu zuen lehiaketa publikoa irabazi ondoren. Kulturgunea, beraz, udal azpiegitura bat da izatez, baina berezitasun bat du: Sanagustin Udal eraikin bat izanik, eta gu hura kudeatzen duen kooperatiba izanik, eraikinaren gastuen %100a bere gain hartzen duen enpresa bakarra da gurea Euskal Herrian. Eta gainera, hilero ostalaritzagatik alokairua ordaintzen dugu.

Historian zehar askotariko erabilera izan du Sanagustinek. 1578an eraiki zuten eta, besteak beste, elizaz gain, komentua, udaletxeko areto eta bulegoak, haurrentzako eskola gelak izan ditu, edota gotorleku eta kuartel eginkizunak bete izan ditu. Herriak alondegia, harategia edo arrandegia jartzeko eskaerak ere egin izan ditu. 1998an, kulturgune izateko erabakia hartu zuen Udalak. 2006ra arte geldirik egon zen, ordea, gaia; harrezkero egin ziren hitzarmenak, obrak... eta 2010eko abenduaren 11n ireki zen Sanagustin.





SOREASU ANTZOKIA

Soreasu Antzokiaren auditorioa 2011ko ekainaren 4an zabaldu zuen Azpeitiko Udalak. Herritarrek auditorioa ikus zezaten goizean ateak zabaldu zituen eta arratsaldetik aurrera zinea botatzen hasi ziren.

Zabaldu zenetik 2014ko ekainera arte enpresa baten esku utzi zuen Udalak antzokia. Urte horretan, lehiaketa publikora ateratu zuen Udalak Soreasu Antzokiaren kudeaketa. Kultur Mahaiko 22 taldeek gogoeta abiatu zuten azpiegitura horren kudeaketa izatearen aukeraren inguruan. Dударik ez zuten izan, abantailak bakarrik ikusten baitzizkioten.

Beraz, jauzi estrategikotzat jo zutenez, proiektua idatzi eta lehiaketara aurkeztu zen. Irabazi ostean, 2014ko urrian sinatu zuen hitzarmena Udalarekin.





kanpo begiradak



Miriam Romatet

Zumaiako Udaleko kultur teknikaria

Antzerkitik dantzaldira, kantautoreak, rocka edo flamenkoa. Nola liteke dena antolatzea ausartu eta ondo egitea gainera!

Azpeitiko kultur bihotza indartsu dabil taupadaka, lan talde bikaina eta sarean jarduteko trebeziarekin. Pauso bat gehiago eskatuko nuke nik, elkarlana bailarara zabaltzea. Denontzat erronka hauxe.

Zumaiatik poz-pozik hurbiltzen gara zuenera, eta jarraitzeko asmotan.

Urte askotarako!



Andoni Garaizar

Kultiba enpresako kidea

Hainbat datu aipagarri ikusten ditut baina aukeratu beharko banu, harremanei buruz ateratakoa aipatuko nuke. Herriko eragile kulturalen %95arekin harremana sendotu eta horietako %93arekin emaitza zehatza lortu izana.

Horrek eredu argi uzten du, eragile kulturekin, udalarekin eta publikoarekin landutako harreman eredu. Herriarekin eginez eta eragile zein bestelako publikoari zerbitzua emanez landutakoa.

Konpromiso hori oinarritzat hartuta, Euskal Herri mailan publikoa nola erakarri aztertzen ari diren bitartean, Azpeitian errealitatea izateko bidean da.



Gotzon Barandiaran

Idazlea / Kultura sustatzailea

Nor aproposago kultura proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko herriko kultur eragileen bilgunea baino?





Maria Jose Telleria

Gipuzkoako Foru Aldundiko
Kultura zuzendaria



Zer da? Zein da? Non da? Noiz da? Zelan da? Erraza izan beharko litzateke galdera horiei erantzunez Kulturaz-en ekimena?!, dinamika?!, proiektua?! definitzea, baina azalpenak ezin izango du inoiz azaldu Azpeitian gertatzen ari dena. Gertatzen ari denaren jatorria ezagutzea ezinbestekoa delako gaurkoa ulertzeko. Eta ez naiz historiari buruz ari, ezta formula juridiko edota eraikin bati buruz ere; ez nuke horretara mugatuko bizipenaren iturburua.

Jatorri horrek buruak eta gorputzak jarri zituen martxan, baina bihotzean du sorburu eta iturri horretatik edaten du egunero, energiak behin eta berriz transformatuz. Izan ere, kultura berria da beti. Elkarriketa eta eskuzabaltasunaren emaitza da. Baina premiazkoa du testuinguru bat eta abagune horretan lanerako prest dagoen jendea, entzuteko gertu dagoena, bene-benetako lankideak batzeko. Eta horren arabera eta horren ondorioz edota horra heltzeko, etengabe garatu behar du. Helmugara inoiz heldu barik, bidea bera delako helburua.

Kulturaz-en dinamika zabalkundean oinarritzen da; ezinbestekoa da hori kultura konpartitzeko. Ekitaldietan bilatzen du, berriz, bere egunerokotasuna. Eskaintza zabala eta anitza du, deskantsurik gabekoa, azpeitiarrei ez ezik inguruko bizilagunei

ere bertako, ondoko eta kanpoko produktua hurbiltzen diena. Urrutira eramaten gaituena. Gure barneraino.


Emanaldi horiek dira sortzaileek behar izaten dituztenak lanean jarraitzeko, euren beharrei erantzuteko; baina euren Beharra (B larriz) asetzeko sortzen jarraitzea ezinbestekoa zaie. Ekoiztea, esperimintatzea, saiatzeta... Prozesu horietan datza artea eta hortik dator Sanagustinen erreferentzialtasuna Gipuzkoan hainbat talde eta konpainientzat.

Izan ere, munduan zehar bidaiatzen diharduten hainbat antzezlanek Azpeitian eman izan dituzte euren lehenengo urratsak; plaza izan da aktore, zuzendari, teknikari, eszenografo eta gainontzeko profesionalentzat, ideia errealitate bihurtzeko beharrezkoak diren lagunentzat eta lankideentzat aterpea. Sanagustin sistema baten sukaldea ere badelako.

Orain, sortu denari eusteko modua asmatu beharra dago. Proiektuaren bideragarritasunak prozesuaren zati bakoitzaren eta parte hartzaile guztien egoera ere kontuan behar ditu izan aurrera egiteko. Epe motz, ertain eta luzerako plangintza prestatu eta errealitatean murgilduta egin behar dute bidea, Kulturaz-ekoek ondo dakiten moduan. Elkarrekin, batera. Bidea bera helburu.



Kulturaz



www.kulturaz.eus